



metro bilbao

Informazioaren barruko sistemaren politika

23-JI-D C-006

Bertsioa 0
22/09/2023



Versión	Fecha	Motivo
0	Iraila 2023	Hasierako bertsioa.

Egile: Lege Aholkularitza
Data: 2023ko irailaren 22a

Berrikusi: Lege Aholkularitza
Data: 2023ko irailaren 22a

Onartua: Administrazio-kontseilua (Atxikipenez, Zuzendaritza Nagusia)
Data: 2023ko irailaren 22a



Índice

1. Hitzaurrea	4
2. Metro Bilbaoren barruko informazio-sistemaren funtsezko printzipioak eta osagaiak	4
2.1. Barruko informazio-kanalak Metro Bilbaon	4
2.2. Behar bezala jakinarazi diren, oso eskura dauden, seguruak eta konfidentzialak diren kanalak.....	5
2.3. Barruko informazio-sistemaren arduraduna	6
2.4. Errepresalietatik babestea.....	6
2.5. Informazioa.....	7
3. Politikaren onespena, indarraldia eta zabalpena.....	7



1. Hitzaurrea

Gure funtsezko balioak eta, bereziki, erakundearen aspaldi ezarrita dugun araudiak betetzeko kultura garatzeko, Metro Bilbao SAko (aurrerantzean Metro Bilbao) Administrazio-kontseiluak «Barruko informazio-politikaren sistemaren politika» onartu eta jakinarazten du; erakundearen Corporate Compliance programan txertatzen da.

Politika horren helburu behinena gure barruko informazio-kanalak eta horiek kudeatzeko prozedurak zein printzipio orokorretara egokitu behar diren ezartzea da. Zertarako?:

- (i) Lanarengatik edo lanbidearengatik balizko arau-hauste baten berri duten pertsonak horri buruzko berri emateko bide seguru eta konfidentziala eskura izatea erraztu eta bermatzeko. ¹
- (ii) kanalaren edo kanalen bidez jasotzen diren balizko arau-haustek jakinarazteko eginbide inpartziala ziurtatzeko, eta
- (iii) fede onez informatzen duten pertsona guztiak behar bezala babesteko.

2. Metro Bilbaoren barruko informazio-sistemaren funtsezko printzipioak eta osagaiak

2.1. Barruko informazio-kanalak Metro Bilbaon

Metro Bilbaok hauek ditu:

- (i) Informazio orokorreko barruko kanala, Europako zuzenbide-, zigor-, administrazio- alorretako eta laneko segurtasun- eta osasun-alorretako balizko urratzeen jakinarazpena bideratzeko.
- (ii) Arestikoari eragin gabe, eta gaia bitxia eta berezia denez, egokietsi da berariazko barruko informazio-kanala izatea (prozedura ere berezia duela, funtsezko printzipio beren pean) jazarpen-mota ezberdinekin (sexuala, lanekoa, eta abar) loturiko gaien berri eman ahal izateko. Nolanahi ere, informazio orokorreko barruko kanalean

¹ Europako zuzenbidearen arloko arau-haustek, arau-hauste penalak, arau-hauste administratiboak eta laneko segurtasun eta osasunaren arloko arau-haustek, eta Jokabide-kode Etikoa edo *Corporate Compliance* programa ez betetzea.

jasotzen den horrelako edozein informazio tramitatzea dagokien arduradunengana bideratuko da, berariazko barruko informazio-kanaletik heldu balitz bezala.

Kanal horiek lege honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzte: 2/2023 Legea, otsailaren 20koa, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena (aurrerantzean 2/2023 Legea).

2.2. Behar bezala jakinarazi diren, oso eskura dauden, seguruak eta konfidentzialak diren kanalak

Metro Bilbaoren web orrian eta intranetean argi eta bereizita jakinaraziko da informazio orokorreko barruko kanala dagoela jazarpen-gaiak berariaz bideratzeko, kanpoko kanalera jotzeko aukera dagoela ere ohartarazita ere (kanal hori/horiek ezarrita daudenean).

Dagokion lotura edo estekatik balizko informatzaileek zuzenean ezagutuko dute:

- (i) zer aukera duten ustezko urratzeen berri emateko (idatziz, ahoz, anonimoki zein konfidentziltasunez zaindutako identifikazioz, posta elektronikoz edo aurrez aurre/bideokonferentziaz, telefonoz eta abar).;

Balizko urratzeen idatzizko informazioak helbide elektroniko hauetatik bidali ahal izango dira:

- Informazio orokorreko barruko kanala: garden@metrobilbao.eus
- Jazarpen-gaietarako berariazko barruko informazio-kanala: Aholkulari konfidentzietako edonori jakinarazi ahal izango zaio. Iñigo Apellaniz (iapellaniz@metrobilbao.eus) edo Lina Sustatxa (lsustatxa@metrobilbao.eus).²

- (ii) jakinarazpen horiek bete beharko dituzten baldintza orokorrak (nork jakinaraz dezakeen, zertaz, zer egitate, data eta pertsona egon litezkeen tartean, frogak eta froga-hastapenak eta abar).
- (iii) horrela jasotzen diren informazioak kudeatzeko prozedura (onartze-irizpideak, epeak, jakinarazpenak, ikerketa-fasea, ondorioak, eta abar).

² Dokumentu honetan arautua: Laneko jazarpenari eta jokabide ezegokiei aurre egiteko protokoloa. Jazarpen-gaietarako berariazko barruko informazio-kanala (17-JI-DC-007).



Barruko informazio-kanal horietatik jasotzen den informazioa modu seguru eta konfidentzian erabiliko da, 2/2023 legearen eta datu pertsonalak babesteko araudian xedatutakoa erabat betez.

Sistemaren arduradunak eta 2/2023 legeak aipatzen dituen pertsonak soilik eskuratuko dute informazioa.

Informatzailearen nortasuna bereziki babestuko da, une oro, eta prozeduraren fase guztietan, 2/2023 legearen 33.3 artikuluan ezarritako kasuetan izan ezik, hor xedatzen dena betez.

Informazioak eragindako pertsonen eskubideak ere babestuko dira, bereziki entzun dakien eta alegazioak aurkezteko eskubidea (informatzailearen nortasuna babestu beharrezkin talka egin lezakeena salbu), eta errugabetasun-presuntziorako eskubidea. Beraien nortasuna eta datuak ere 2/2023 legean esandako konfidentziasunetik handienaz erabiliko dira.

2.3. Barruko informazio-sistemaren arduraduna

Metro Bilbaoren barruko informazio-sistemaren arduraduna barruko informazio-sistema osoaren eta, hartara, arestian esandako barruko informazio-kanalen arduradun gorena izango da.

Metro Bilbaoren Administrazio-kontseiluak, 2/2023 legea betetzeko, Compliance Officerra izendatzen du Sistemaren arduradun ere izateko (aurrerantzean Sistemaren arduradun-Compliance Officer), esperientziarengatik eta jakinduriarengatik. Izendatzea eta, izatekotan, kargugabetzea dagokien Agintaritzari jakinaraziko zaie (2/2023 legearen arabera), eratzen direnean.

Administrazio-kontseiluak: (i) Sistemaren Arduradun-Compliance Officerraren inpartzialtasuna eta independentzia ziurtatuko ditu, inoren esku-hartzeetatik bereziki babestuz; (ii) erakunde osoari jakinaraziko dio, Jokabide-kode etikoaren bidez, Metro Bilbaoko langile guztiek Sistemaren Arduradun-Compliance Officerrari laguntzera behartuta daudela, zeregin horretan ari denean (bereziki barruko ikerketetan), baita eskatzen dien informazioa eman edo jarduerak egitera ere, (iii) Sistemaren Arduradun-Compliance Officerra gaituko du, kudeaketa-prozeduraren bidez, jasotako komunikazioetan lagundu edo aholkatzeko kanpoko adituengana jotzeko, barruko ikerketak diseinatu edota garatzeko, zein ondorioak formulatzeko.

2.4. Errepresalietatik babestea

Metro Bilbaoko Administrazio-kontseiluak eta Zuzendaritza Nagusiak fede oneko informatzailea erakundearen zein hirugarren errepresalietatik babestea bermatuko dute.

Balitzko errepresaliak eragotzi eta hautemateaz gain, errepresaliarik hartzen dutenak (gertatuz gero) legean eta hitzarmen kolektiboan aurreikusten den moduan zigortuko dira.



Errepresaliak diziplina-edukia dutenez gain, barruko sustapenean, prestakuntzan, kontziliazio-neurrietan eta abar jasan litezkeen murrizketak ere badira.

2.5. Informazioa

Erakundearen parte diren pertsona guztiei balizko arau-hausteen prebentzioaren, hautematearen eta tratamenduaren berri emango zaie.

Arauk betetzearen kultura eta erakundearen jardura guztietan etika eta zintzotasuna sustatuko dira.

3. Politikaren onespena, indarraldia eta zabalpena

Barruko informazio-sistemaren politika hau Metro Bilbaoren Administrazio-kontseiluak onartu du 2023ko irailaren 22ko bileran, langileen legezko ordezkariari zegokien kontsulta egin ostean. Indarrean egongo da, termino horietan, Administrazio-kontseiluak, langileen legezko ordezkariari galdetu ostean, adostasunez aldatzen ez den arte.

Metro Bilbaoren web orrian argitaratuz zabalduko da (jende guztiak jakin dezan), baita intranetean ere (erakundeko langileek jakin dezaten).